


## Altza

## Auzolan partaidetzaren bila

Auzolan duela lau bat urte jaio zen, auzoko elkarteak koordinatzeko asmoz. Orain, berriz, Altzan herritarren partaidetza sustatzeko plana bultzatu nahi du.



Sara Soria

**A**uzolan koordinadoran hainbat elkarteak parte hartzen dute. Sortu zenetik, baliabideen gida eta auzoko ezaugarrien azterketa osatzen aritu da eta zenbait jardunaldi ere antolatu ditu. Helburua Altzari buruz ahalik eta informazio gehien zabaltea da. Egun, herritarren partaidetzarako plana indarrean jartzea da lehenetara.

### Epe luzerako lana

Planak administrazioaren,

teknikarien eta herritarren arteko elkarlana bultzatzea du helburu eta, bide batez, parte hartzaile guztiek Altzan sor daitezkeen arazoez edo berri-kuntzez ahalik eta informazio zabalena izan dezaten lortu nahi da. Parte Zaharrean bizilagunen eta ostalarien arteko gatazka konpontzeko burutzen ari den Herritar Partaidetzaren antza du bultzatu nahi den planak, baina ez dira gauza bera. Parte Zaharrean erroldatik aukeratutako herritarrek parte


### Etorkizuneko Altzari buruzko topaketak

Altza XXI plataformak antolatuta, hilaren 31n, ostirala, Jose Allende EHUKo irakasleak lurraldearen antolaketa eta herritarren partaidetzari buruzko hitzaldia eskainiko du Casares kultur etxean, 19.30ean. Ekainaren 1ean, aldiz, "Gure auzoen leihotatik begira" mahai ingurua egingo da 10.00etatik aurrera.

hartzen dute, eta xedea epe laburrean arazo jakin bat konpontzea da. Altzako planeko partaideak, berriz, beraien borondatez hurbildutako herritarrek dira eta lana epe luzerako da. "Helburua bizi kalitatea hobetzea da", adierazi digu Amaia Vidaurre Auzolaneko kideak.

## Gros

## Armiarma sarea Pinudi plazan



Xabier Etxabe

**H**ilaren 31n, ostirala, John Otazu artista nafarrak Pinudi plaza inguratzen duten etxebizitzak soken bidez lotu eta armiarma

sare bat osatuko du. Otazuk 24 ordu pasako ditu armiarma sare horretatik zintzilik margotzen. Artista nafarrak ohea ere jarriko du amaraunean. Otazuk bere bizitzako egun arrunt bat ohiko testuingurutik atera nahi

du egitasmo honen bidez. Ez da, hala ere, mota honetako proiektuak egiten dituen lehen aldia.

Bestalde, hilaren 31n bertan, artista nafarrari buruzko erakusketa zabalduko da Arteko galerian. Erakusketa horrek John Otazuk 70eko hamarkadaz geroztik egindako lanak bilduko ditu. Arteko Galerian Cristina de la Fuëntek esan digunez, "Otazuren artelanak bitxiak dira oso. Besteak beste, orduko 150 kilometroko abiaduran zihoan auto batean margotutako koadroak izango ditugu ikusgai".

euskararen  
donostia

Donostia



Donostia Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

### Haur antzerkia

- "Zapatik" La sal taldea  
Maiatzaren 25ean, 18.00etan  
Altza Kultur Etxean
- "Marxo" Kresala  
Pantina dantzarien ikuskizuna  
Maiatzaren 25ean, 18.00etan  
Egia Kultur Etxean

### Poltsiko antzerkia

- "Neskapolitan" Kasketa Kabareta  
Maiatzaren 25ean, 23.00etan  
Martuteneko Trinkete tabernan

### Musika

- Kantu jirra eta kantu afaria  
Maiatzaren 24an  
20.00etan eta 22.00etan  
Txartelak salgai  
Larrotxerri Kultur Etxean

### Kirola

- Antzuako XII. Herri Krosa (Euskaldunon Egunkariaren alde)  
Maiatzaren 26an, 11.00etan  
Antzuako Matia kalean